12.1. Ea identifikatzen dituen grekolatindar munduaren arte-adierazpenak, eta haiei buruzko laburpenak egiten dituen.

12.2. Ea jabetzen den artelan horiek gizakiaren historian bizirik iraun dutela, eta hainbat bitarteko direla horren lekuko: arte-hiztegiak, bideoak eta Internet, museoak, arkeologia-irtenaldiak, etab.

12.3. Ea alderatzen dituen arte klasikoko adierazpenak eta gaur egungoak, eta arte klasikoaren eraginaz jabetzen den.

ERLIJIOEN HISTORIA ETA KULTURA

SARRERA

Mendebaldeko egungo gizarteetan, erlijioaren gertakaria ez da soilik sinesmenek osatzen duten alde subjektibotik ulertzen, ezaugarri bereziak dituen kultura-adierazpen gisa ere ulertzen baita. Ikuspegi horretatik, aukera dugu erlijioari irizpide analitikoetatik heltzeko. Irizpide horiek doktrina-eztabaidetatik aldentzen dute erlijioa, eta eztabaida arrazionalerako esparruen aukera zabala zabaltzen dute. Komeni da, baita ere, kontuan hartzea arrazionaltasun kontzeptua egun zabaldu egin dela. Jende ugarik eskatzen du dimentsio mitiko-sinbolikoak eta estetiko-espresiboak berreskuratzeko. Horrek ez du esan nahi arrazoia zatitu egingo denik, baizik eta, Habermas-ek dioen bezala, aniztasuna eta ahotsen polifonia indartuko direla. Arrazoiaren handitutako ikuspegi horretan, erlijioak dimentsio sinbolikoan -«sinboloen arabera pentsatzen duen adimena»- du bere lekua. Eta horrek ez du esan nahi, ahotsen polifonia horretan arrazoi kritikoaren zaintza alde batera utzi behar denik.

«Erlijioen Historia eta Kultura» irakasgaiak bere gain hartzen du esparru horiek eskola-erakundera eramateko konpromisoa, eta ikasleei aukera eskainiko die elkarrizketak zuzendutako eta demokraziaren printzipioen mendeko kultura-eztabaida batean parte hartzeko. Interpretazio-gako horixe da, eta ez beste bat, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan irakasgaia antolatzeko erabili behar dena, munduaren garapen desberdinaren ondorioz, Euskal Herrira hainbat erlijio-sinesmen eta kulturako pertsonak etortzen ari diren une honetan, nagusiki. Pertsona horiekin batera, gizarte integratzailea eta irekia eraiki behar dugu.

Gainera, ezin dugu ahaztu erlijio-sinesmenen aniztasun amaigabea, erlijioaren ikusmolde monolitiko zaharra hautsi baitu. Ikusmolde hori ohikoa da munduaren azalpen osoa ematen duten ikuspegietan, eta, oraindik ere, aurki dezakegu gure munduan eta gure ingurune geografikoko beste zenbait kulturatan. Ezinbestekoa da gure gizarteak pentsatzea hortik gatazka-egoera sor daitekeela. Izan ere, egoera konplexua da, eta elkarrizketaren eta hezkuntzaren bidetik bakarrik hel dakioke. Horrela, eskolaren zereginak gizalegezko dimentsio eta erantzukizun nabarmena hartzen ditu, erlijio-aniztasuna gertakari eztabaidaezina den gizartean. Arrazoi hori

12.1. Identifica y hace resúmenes sobre las diversas manifestaciones artísticas del mundo grecolatino.

12.2. Observa su pervivencia a lo largo de la historia de la humanidad mediante el uso de diccionarios de arte, videos, internet, de visitas a museos, de excursiones arqueológicas, etc.

12.3. Compara las manifestaciones artísticas clásicas con las actuales y reconoce su influencia sobre éstas.

HISTORIA Y CULTURA DE LAS RELIGIONES

INTRODUCCIÓN

En las actuales sociedades occidentales tiende a entenderse el fenómeno religioso no únicamente desde la vertiente subjetiva que constituyen las creencias, sino también como una manifestación cultural con sus peculiares características. Con esta perspectiva se abre la posibilidad de abordar la religión desde criterios analíticos que la alejan de la controversia doctrinaria para abrir todo un abanico de posibles marcos de discusión racional. También viene al caso tener en cuenta que hoy en día se ha ampliado el concepto de racionalidad. Hay numerosas voces que reclaman la recuperación de las dimensiones mito-simbólicas y estético-expresivas. Esto no significa despiezar la razón sino afirmar su pluralismo, la polifonía de sus voces, como dice Habermas. En esta visión ampliada de la razón, en su dimensión simbólica –«una inteligencia que piensa conforme a los símbolos»- tiene cabida la religión. Y eso no significa abandonar, en esa polifonía de voces, la vigilancia de la razón crítica.

La materia «Historia y cultura de las religiones» asume el compromiso de trasladar esos marcos a la institución escolar para ofrecer al alumnado la opción de tomar parte en un debate cultural guiado por el diálogo y sometido a las exigencias de los principios democráticos. Ésta, y no otra, es la clave interpretativa con la que ha de plantearse la materia en la etapa de educación secundaria obligatoria, especialmente cuando el desigual desarrollo mundial está provocando la afluencia al País Vasco de personas de diferentes creencias religiosas y diversidad cultural con las que debemos construir conjuntamente una sociedad integradora y abierta.

Además, no podemos perder de vista la variedad inacabable de creencias religiosas que ha quebrado la vetusta concepción monolítica de la religión típica de visiones omnicomprensivas del mundo que, sin embargo, siguen presentes en la nuestra y en otras culturas del entorno geográfico. Surge de aquí una situación potencial de conflicto que nuestra sociedad no puede dejar de plantear. Ciertamente, se trata de una situación compleja cuyo abordaje solo puede encaminarse por la vía dialógica y educativa. La tarea de la escuela adquiere así una dimensión y una responsabilidad cívica destacable en una sociedad en la que el pluralismo religioso

dela eta, «Erlijioen Historia eta Kultura» irakasgaiak bere leku naturala du «Herritartasunerako Giza Eskubideetarako Hezkuntza» irakasgaiarekin lotzen denean. Bi irakasgai horiek partekatutako intentzionalitatea nabarmena da hemen aurkezten diren curriculumeko elementuetan.

Erlijio-sinesmenak gizakiaren sorkuntza historikoak diren aldetik ulertzen ditu «Erlijioen Historia eta Kultura» irakasgaiak, eta ikasleak hurbiltzen saiatzen da erlijioetan antolatutako jainkotiartasun moten ezagutza kritikora, bai eta haien adierazpenetara ere. Horrez gainera, beste errealitate sozial, politiko eta kulturalekin alderatzen ditu. Zer esanik ez, erlijioak, gizarte-produktu den aldetik, sorrerako gizartearen antolaketan eta garapenean ekiten du; hortaz, ezinbestekoa da garai eta leku ezberdinetako pentsamenduan, kulturan eta bizitza kolektiboan zer-nolako eragina izan duen ulertzea. Erlijioen funtsezko ezaugarrien ezagutzak dagokion errealitate historiko zehatzean kokatzen du erlijio-adierazpena, proiekzio positibo nahiz negatiboekin. Kultura-gakoak ere ematen ditu, zibilizazio bakoitzaren gertakari politiko, sozial eta kulturaletan eragina izan duten erlijioaren adierazpenak eta erlijio-baldintzak osatzeko.

Planteamendu horren barruan ulertu behar dira helburuak, edukiak eta ebaluazio-irizpideak. Jakintza objektibo bat ikasteko tresnak baino areago, gizarte demokratiko bati dagozkion trebetasunak eta herritar konpromisoak ikasteko tresnak diren heinean ulertu behar dira. Euskal gizartea ere gizarte demokratikoa da, eta ezaugarri bereziak ditu politikari, gizarteari eta kulturari dagokionez. Kulturarteko fenomenoa ere ez da ahaztu behar. Horrexegatik barnean hartzen dira espezifikotasun horri buruzko erreferentzia esplizituak, eta azpimarratzen da ikasgelako jardueretako metodologia zehaztuko duten prozedurazko eta jarrerazko trebetasunen erabilera.

Erlijioak ikastean, misterioa funtsezko erreferentzia da, baina misterioarekiko harremana bitartekotzen bitartez adierazten da. Bitartekotza horiek dira jainkoarekiko topalekua. Sinestunen aukeratik kanpo erlijioak ikastean, logikoa da misterioarekiko harremana alde batera uztea. Era berean, logikoa da, baita ere, funtsezko edukiak narrazio, gurtza, moral, irakaskuntza eta erlijio-kolektibo gisa hautematen dena aztertzera mugatzea. Kolektibo horiek osatzen dituzte erlijio-bitartekotzak, gizakiaren eta dagokien garaiaren zati diren kultura-eraikuntzak. Horrexegatik diogu, erlijioen eskola-irakaskuntzan, edukiak kultura-eduki diren aldetik transmititzen direla, kulturaren berezko edukiak dira-eta.

Erlijioen edukiak berezko egitura eta funtzionamendua duten pentsamendu motak dira. Erlijio-pentsamenduaren adierazpen motak berezko hizkuntza batean zehazten dira: mitoen hizkuntzan, gurtzan, epaiketa moralean eta errealitatea interpretatzeko berezko zentzuan. Hizkuntza horrek hizkuntza arrazionalaren

es un hecho incuestionable. Es esta la razón por la que «Historia y cultura de las religiones» encuentra su lugar natural en el entronque con la materia «Educación para la ciudadanía y los derechos Humanos» con la que comparte una intencionalidad visible en los elementos del currículum que aquí se presentan.

«Historia y cultura de las religiones» concibe el estudio de las creencias religiosas como creaciones humanas históricas y trata de acercar al alumnado al conocimiento crítico de las diferentes formas de religiosidad organizadas en religiones, así como de sus manifestaciones en relación con otras realidades sociales, políticas y culturales. Naturalmente, la religión en cuanto producto social actúa sobre la organización y desarrollo de la sociedad en la que surge, por lo que es imprescindible comprender su influencia en el pensamiento, la cultura y la vida colectiva en las distintas épocas y espacios. El conocimiento de las características fundamentales de las religiones enmarca la expresión religiosa en su realidad histórica concreta, con sus proyecciones positivas y negativas. También aporta las claves culturales que configuran las manifestaciones de la religión y los condicionamientos religiosos que han influido en los hechos políticos, sociales y culturales de cada civilización.

Los objetivos, contenidos y criterios de evaluación han de entenderse dentro de este planteamiento. Más que constituir instrumentos para adquisición de un saber objetivo, deben entenderse como herramientas para adquirir habilidades y compromisos cívicos propios de una sociedad democrática como la sociedad vasca con su caracterización específica en los planos, político, social y cultural, sin olvidar el fenómeno intercultural. Éste es el motivo de incluir referencias explicitas a esa especificidad y la insistencia en la utilización de destrezas procedimentales y actitudinales que determinarán la metodología en las actividades de aula.

En el estudio de las religiones el misterio es una referencia fundamental, pero su relación con el misterio se expresa mediante mediaciones, que son el lugar de encuentro con la divinidad. Es lógico que un estudio de las religiones desde fuera de la opción creyente excluya la relación con el misterio y los contenidos fundamentales se limiten al estudio de lo que se percibe como la narración, el culto, la moral, la enseñanza, el colectivo religioso, que son las mediaciones religiosas, construcciones culturales que forman parte del patrimonio de la humanidad y del tiempo a que pertenecen. Por eso decimos que en la enseñanza escolar de las religiones los contenidos se transmiten en cuanto contenidos de cultura, que son los contenidos propios de aquella.

Los contenidos de las religiones son formas de pensamiento con estructuras y funcionamiento propios. Las formas de expresión del pensamiento religioso se concretan en un lenguaje propio que es el lenguaje de los mitos, el culto, el juicio moral y un sentido propio en la interpretación de la realidad que utiliza esquemas

eskema logikoak erabiltzen ditu, eta berezko esangura-eskemari ematen dio bidea. Interpretazio subjektibo hori ezin daiteke egiazta, eta, sinestunarentzat egiazkoa den arren, ez da existitzen sinestuna ez denarentzat. Ezinbestekoa da erlijioei eskatzea jakintza profanoen gainetik ez jartzeko eta giza zientzien aurrerapenak modu kontsekuentean erabiltzen jakiteko. Era berean, printzipioen arabera aritu behar dugu, eta ez ditugu erlijio-pentsamenduari buruzko datuak faltsutu behar.

Ezagutza-arlo honetan, beste guztietan bezala, kontuan hartu behar dira ikasleek garapenaren etapa bakoitzean dituzten ezagueraren gaitasun eta egitura mentalak. Alde horretatik, eboluzio-lerro bat finkatzen da Lehen Hezkuntzatik, nola gaitasunetan hala eduki eta ebaluazio-irizpideetan. Hori dela eta, bat-etortze nabarmenak daude Lehen eta Bigarren Hezkuntzako curriculumetako elementuen artean. Bi curriculum horiek ez dira jorratu behar sakontasun-maila berean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen hiru ikas-mailetan, erlijioaren jatorriaren azterketatik abiatzen da, bai eta erlijioaren gertakariari buruzko erantzunen aniztasunetik eta egungo munduko erlijioen banaketaren esparru espazial eta kuantitatibotik ere; erlijio nagusien karakterizazioak osatzen du funtsezko nukleoa. Erlijio historiko jakin batzuk oso garrantzitsuak izan dira gure kulturaren osaketan eta egungo munduaren ezaugarritzean. Horrek erlijio monoteista handietan sakontzea eskatzen du; batez ere, Mendebaldeko munduko arte- eta kultura-adierazpen gehienen oinarrian dauden erlijioetan. Aldi berean, erlijio horiek gizakiak sortutakoak diren aldetik, historiaren testuinguruan jartzen dira, eta printzipio demokratikoekin lotzen dira, gure gizarteko ekintzaren gida orientatzaileak dira eta. Genero-ikuspegia ere aipatzen da, eta kontuan hartzen da protagonismo handia izan duela egungo gizartean emakumeen eta gizonen rola finkatzeko.

Laugarren mailan, erlijioen ikasketari helduko zaio. Horretarako egingo den azterketaren bitartez, hainbat kontzeptu ulertzen lagunduko da: erlijioek zer-nolako eragina jasotzen eta, aldi berean hedatzen duten gizarte-bizitzan; erlijio-ideien eta pentsamendu zientifikoaren arteko erlazioa; erlijioak zer-nolako jarrera duen ezarritako gizarte-ordenaren justifikazioan edo haren gaitzespenean; erlijioak historian zehar nahiz gaur egun boterearekin izan dituen harremanak. Estatuen izaera bereiziko da, lurralde bakoitzean gehiengoarenak diren erlijioekiko harremanaren arabera, eta erlijio-arrazoiak dituzten zenbait tentsio edo gatazka aztertuko dira. Erlijioek giza eskubideekin eta Espainiako Konstituzioarekin duten harremanari buruzko hausnarketa ere proposatzen da, erreferentzia komunak baitira erlijio-sinesmen jakin batzuk dituzten pertsonen eta horrelako sinesmenik ez duten pertsonen artean partekatutako balioentzat.

lógicos del lenguaje racional y que propicia un esquema de significación propio. Esa interpretación subjetiva no es verificable y no existe para la persona no creyente, aunque para la persona creyente sea cierta. Si es imprescindible pedir a las religiones que no se pongan por encima de los saberes profanos y que sepan utilizar consecuentemente los avances de las ciencias humanas, de la misma forma hay que ser consecuentes y no falsear datos sobre el pensamiento religioso.

En ésta, como en todas las áreas de conocimiento, hay que tener en cuenta las capacidades o estructuras mentales del conocimiento que posee el alumnado en cada etapa de su desarrollo. En este sentido, se establece una línea evolutiva desde la educación primaria, tanto en las competencias como en los contenidos y criterios de evaluación. Esta es la razón por la cual existen coincidencias notables entre los elementos del currículum de primaria y de secundaria, que deberán tratarse en niveles de profundidad diferentes. En los tres primeros cursos de la etapa de la Educación Secundaria Obligatoria se parte de un análisis del origen de la religión y de la diversidad de respuestas ante el hecho religioso y del marco espacial y cuantitativo en la distribución de las religiones en el mundo actual; el núcleo fundamental lo constituye la caracterización de las principales religiones. La importancia de algunas religiones históricas concretas en la configuración de nuestra cultura y en la caracterización del mundo actual exige profundizar en las grandes religiones monoteístas y, en particular, en aquéllas que se encuentran en la base de la mayoría de las manifestaciones artísticas y culturales del mundo occidental. Al mismo tiempo se contextualizan históricamente esas religiones en cuanto creaciones humanas y se relacionan con los principios democráticos, guías orientadoras de la acción en nuestra sociedad. También se introduce la perspectiva de género, entendiendo que han tenido un protagonismo destacado en la consolidación del rol femenino y masculino en las sociedades actuales.

En cuarto curso se aborda el estudio de las religiones desde un análisis que ayude a la comprensión de la influencia que han reciben y a la vez proyectan en la vida social, la interrelación entre las ideas religiosas y el pensamiento científico, la posición de la religión en la justificación o el rechazo al orden social establecido y sus relaciones con el poder en diferentes momentos históricos y en la actualidad, diferenciando el carácter de los Estados según sea su relación con la religión o religiones mayoritarias en su territorio y analizando algunas tensiones o conflictos que incluyen entre sus causas una raíz religiosa. También se propone la reflexión sobre la relación de la religiones con los derechos humanos y con la Constitución española, que constituyen los referentes comunes de los valores compartidos por las personas con unas determinadas creencias religiosas y por las que carecen de ellas.

Metodologiari dagokionez, lehentasuna ematen zaie prozedurazko eta jarrerazko dimentsioei. Lehentasun hori gauzatu beharko da elkarrizketa-harremanaren eta parekoen arteko lankidetzaren aldeko tekniken bitartez, eta eginez ikasteko biderik egokiena hori dela ulertuz. Hortaz, tresnarik egokienak lankidetza-lanarekin zerikusia dutenak eta, oro har, elkarrizketa-harremana sustatzen dutenak izango dira; esaterako, eztabaida arrazionala edo hainbat iturritako –idatzizkoak, ahozkoak (nabarmendu diren pertsona helduenak) eta digitalak– informazioaren bilketa eta iragazpena. Hori guztia, norberaren hausnarketa teorikoekin nahastuta, esperientzia komunak kognitiboki kontzeptualizatzen eta egituratzen laguntzeko.

Ebaluazioa orientazio horietara egokituko da, eta prozesua jardueraren lehentasunezko helburutzat hartuko du. Horretarako, lankidetza- eta elkarrizketa-lanera egokitu daitezkeen tresnak erabiliko dira, banakako jarduera behatzeko eta kalifikatzeko aukera ematen duten beste tresna batzuk ahaztu gabe.

## OINARRIZKO GAITASUNAK ESKURATZEKO IRAKASGAI HONEK EGINDAKO EKARPENA

«Erlijioen Historia eta Kultura» irakasgaiak bereziki gaitasun hauek eskuratzen laguntzen du: gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, ikasten ikasteko gaitasuna, norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna, eta giza eta arte-kulturarako gaitasuna. Agerikoa da, bizi dugun gizarte errealitatearen ulermena eta bizikidetza demokratikoa errazten dituela, oinarrizko elementutzat sinesmen-aniztasuna onartzen baitu. Era berean, gizarte gertakarien azterketa zehatza eta arrazoi anitzekoa proposatzen du, eta, aldi berean, funtsezko gizarte-trebetasunak garatu nahi ditu; adibidez, norberaren ideiak adieraztea, harremanak berdintasunez egiten jakitea, elkarrizketa-komunikazioa, etab.

Bestalde, lankidetza-lana erabiltzeak eta, arrazoibidearen bitartez, hausnarketa eta norberaren balorazioa egiteak lagundu egiten digute dakigunaz jabetzen, norberaren gaitasunaren muga argiak ezartzen baitira ideien alderaketarekin eta ideia horien adierazpen eta zehaztapenarekin. Horrela, ikasten ikasteko gaitasuna bultzatzen da. Elkarrizketaren bitartez zehaztu, eta idatziz ematean, ikasleek ikasketa-alorraren benetako ikuspegia bereganatuko dute.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunak aldeko eremua aurkitzen du irakasgai honetan. Ikasleek beren balorazio eta erabakiak bere gain hartu behar dituztela, eta beren irizpide pertsonalak garatu behar dituztela azpimarratzea lagungarria da asmoak martxan jartzeko erabakiak hartzeko, bai eta bizi-helburuen eta proiektu pertsonalen plangintza egiteko ere. Horrek bizikidetzarako eta lankidetzarako gizarte-trebetasunak dakartza berekin, beharrezko asertibotasuna ematen baitute norberaren jarrerak defendatzeko eta besteenekin alderatzeko.

Metodológicamente, la prioridad otorgada a la dimensión procedimental y actitudinal debe materializarse en técnicas que favorezcan la relación dialógica y la colaboración entre iguales, entendiendo que es el camino más adecuado para aprender haciendo. Por consiguiente, las herramientas más apropiadas serán las que tienen que ver con le trabajo cooperativo y en general las que potencien la relación dialógica, como el debate racional, la recogida y filtrado de información de fuentes escritas, orales (adultos-as significativos-as) y digitales. Todo ello combinado con reflexiones teóricas personales que contribuyan a conceptualizar y estructurar cognitivamente las experiencias en común.

La evaluación se adaptará a estas orientaciones y tomará el proceso como objeto prioritario de su actividad, para lo que se valdrá de herramientas adaptables al trabajo cooperativo y dialógico, sin olvidar otras que permitan observar y calificar la actividad individual.

## CONTRIBUCIÓN DE LA MATERIA A LA ADQUISICIÓN DE LAS COMPETENCIAS BÁSICAS

La «Historia y cultura de las religiones» contribuye en especial a la adquisición de las competencias social y ciudadana, aprender a aprender, autonomía e iniciativa personal, y cultural y artística. Es evidente que favorece la comprensión de la realidad social en que vivimos y la convivencia democrática desde el momento en que asume la aceptación de la pluralidad de creencias como elemento básico. De igual manera, propone el análisis riguroso y multicausal de los hechos sociales y a la vez busca el desarrollo de habilidades sociales claves, como expresar las propias ideas, saber relacionarse igualitariamente, la comunicación dialógica, etc.

Por otro lado, la utilización del trabajo colaborativo y la reflexión y valoración personal con la ayuda de la argumentación contribuyen a tomar conciencia de lo que se sabe puesto que establecen límites claros de la competencia personal al valerse de la confrontación de ideas y de su expresión y concreción, contribuyendo así a la competencia para aprender a aprender. Al concretarlo dialógicamente y darle forma escrita, el alumnado adquiere una visión real de su campo de aprendizaje.

La competencia autonomía e iniciativa personal encuentra en esta materia terreno favorable. La insistencia en que el alumno y la alumna asuman sus propias valoraciones y decisiones y desarrolle sus personales criterios ayuda(n) en la toma de decisiones para poner en acción los propósitos, así como en la planificación de objetivos vitales y proyectos personales. Esto comporta habilidades sociales para la convivencia y la colaboración, ya que proveen de la necesaria asertividad para defender las posiciones personales y confrontarlas con las de otras personas.

Giza eta arte-kulturarako gaitasuna esplizitu bihurtzen da, erlijioa eta haren arte-adierazpenak kulturaren produktu diren aldetik behatzen direnean. «Erlijioen Historia eta Kultura» irakasgaiaren bitartez ikasleei emandako ezagutzaren kultura-dimentsioak eragin handia du eta izan du gizarte-sarean eta adierazteko erabilitako arte-hizkuntzan. Erlijioaren kultura-ekarpenen balorazioa, haren errealitatearen interpretazio-kodea argituz, erreferentzia izango da gaitasun hori garatzeko.

Gainera, «Erlijioaren Historia eta Kultura» irakasgaiak ekarpen interesgarriak egiten ditu, gainerako gaitasunak garatzeko. Hala, bermatuta dago hizkuntza-komunikaziorako gaitasunean egindako ekarpena, norberaren hausnarketen idatzizko adierazpenarekin batera, eztabaida eta elkarrizketa sistematikoki erabiltzen baitira. Zalantzarik gabe, gaitasun hori pixkanaka garatzea bultzatzen da, hainbat formatutako idatzizko informazioak nahiz informazio grafikoak erabiliz. Era berean, hainbat komunikazio-plano ezarriz (kideen artekoak, erlijioari eta filosofiari buruzko testuekin, Internet, etab.), komunikazio-mailak bereizten lagunduko da, eta horrek hainbat egoeratan moldatzen lagunduko die ikasleei.

Interneti dagozkion tresna digitalak erabiliz, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasun landuko da. Egungo teknologia- eta gizarte-garapenaren baldintzetan, ezinbestekoa da trebetasun horretan iaioa izatea. Ez dugu ahaztu behar, Interneten aurkitu daitezkeen tresna digital ugari (blogak, txatak, ikus-entzunezko fitxategi askeak, etab.), besteak beste, trukea, lankidetza eta ezagutza partekatzea ideietan oinarritzen direla, eta oinarri horiek beharrezkoak dira ikasteko prozesu orotan. Aukera hori oso gomendagarria da lankidetza-lana eta eztabaida arrazionala aurrera eramateko, horiek dira-eta «Erlijioen Historia eta Kultura» irakasgaiaren metodologiaren ardatzak.

Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna ere barnean hartzen da, zientzia-erlijioa harremana eztabaidarako eta hausnarketarako elementu osagarri gisa txertatzen den unetik. Erlijioak gure gizartean betetzen duen eginkizunak zenbait erantzun eskatzen ditu, eta erantzun horiek ikuspegi zientifikoa eta teknologikoa izan behar dute. Zenbait erlijiok metodo historiko-kritikoa erabiltzen dute testu sakratuak interpretatzeko; beste batzuek, aldiz, ez. Zenbait erlijiok eskainitako munduaren ikuspegia ez da bateraezina zientziak eskaintzen duenarekin. Baina hori ez da beti horrela izaten, eta beharrezkoa da kasu bakoitzean zientziak eskainitako ikuspegiarekin egiaztatzea, ikasleek beren interpretazioa eraiki dezaten. Bestalde, askotariko informazioak erabiliz –besteak beste, datu estatistiko eta zenbakizkoak, eta pentsamendu zientifiko-teknikoaren prozedura zehatzak–, gaitasun horren garapenean laguntzen da bereziki. Oro har, zehaztasun logikoko esparruari etengabe erreferentzia eginez, ikasleei ahal-

La competencia en cultura humanística y artística queda explicitada desde el momento en que la religión se observa como producto cultural con sus manifestaciones artísticas. «Historia y cultura de las religiones» aporta al alumnado el conocimiento de una dimensión cultural que ha tenido y tiene una fuerte influencia en el entramado social y en el lenguaje artístico del que se ha valido para expresarse. La valoración de las aportaciones culturales de la religión descifrando su código interpretativo de la realidad servirá de referencia para desarrollar esta competencia.

Además, «Historia y cultura de las religiones» realiza interesantes aportaciones al desarrollo del resto de competencias. Así, su contribución a la competencia en comunicación lingüística está garantizada desde el momento en que se hace uso sistemático del debate y el diálogo junto a la expresión escrita de las reflexiones personales. También la utilización de informaciones escritas y gráficas de diferente formato y la apropiación de claves de interpretación favorecen, sin duda, el desarrollo progresivo de esta competencia. De igual manera, el establecimiento de planos diferentes de comunicación (entre iguales, con textos religiosos y filosóficos, Internet, etc.) contribuye a diferenciar niveles comunicativos que ayudarán al alumnado a manejarse en circunstancias diferentes.

El uso de herramientas digitales propias de Internet contribuirá al tratamiento de la información y competencia digital. En las condiciones de desarrollo tecnológico y social actual es imprescindible ser competente en esta habilidad. No debemos perder de vista que muchas de las herramientas digitales presentes en Internet (blogs, chats, repositorios libres audio visuales, etc.) se basan en la idea de intercambio, colaboración y compartir conocimiento, presupuestos necesarios de todo proceso de aprendizaje. Se trata de una opción muy recomendable para llevar adelante el trabajo colaborativo y la discusión racional, ejes metodológicos de «Historia y cultura de las religiones».

